

## Euskadiko 30 urtetik beherako gazteen herena baino gehixeago lanean dabilta 2016ko lehenengo hiruhilekoan


### Okupazio-tasa zertxobait jaitsi da 2015etik 2016ra

Maiatzaren 1ean **Lanaren Nazioarteko Eguna** ospatzen dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) 16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen okupazio-tasari buruzko datu batzuk azaltzen ditu (okupazio-tasa deritzo adin-tarte jakin bateko biztanle guztien artean okupatuta dauden pertsonen ehunekoari). Azterketa horretarako Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) emandako datuak hartu ditu oinarri. Datuok Biztanleriaren Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) datoz.

2016ko lehen hiruhilekoan 16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen okupazio-tasa


% 36,4koa da, hau da, adin tarte horretako gazteen herenak baino gehixeagok lan ordaindua dute.

Azken urtean gazteen okupazio-tasak izandako bilakaera aztertuz gero, ikus dezakegu tasa hau zertxobait jaitsi egin dela aurreko hiru hiruhilekoetatik hona.



Emakume gazteen okupazio-tasa gizon gazteena baino altuagoa da (% 38,6 eta % 34,2, hurrenez hurren, 2016ko lehen hiruhilekoan). Azken hiruhileko honetan tasa hori puntu bat jaitsi da emakumeen kasuan eta bi puntu baino gehixeago gizonen kasuan.

Lurralde historikoetan jasotako datuei erreparaturuz gero, ikus dezakegu 2016ko lehenengo hiruhilekoan okupazio-tasa oso antzekoa dela hiruretan: % 36,8koa Gipuzkoan, % 36,3koa Araban eta % 36,1koa Bizkaian. Aurreko hiruhilekotik oraingora puntu bat jaitsi da tasa hori Bizkaian, bi puntu baino gehixeago Araban eta ia hiru puntu Gipuzkoan.




Hau da, okupazio-tasaren jaitsiera orokorra izan da aztertutako talde guztietan, nahiz eta intentsitatea desberdina izan.

Bestalde, alderatzen baditugu 30 urtetik beherako gazteen okupazio-tasa eta 65 urtetik beherako populaziorena, zera ikusten dugu: gazteen okupazioa 2016ko lehenengo hiruhilekoan 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriarena baino askoz txikiagoa da (% 36,4 eta %64,8, hurrenez hurren).

Eta ez hori bakarrik. Bilakaera desberdina izan da bi adin talde horietan. Gazteen kasuan jaitsiera izan da azken hiruhilekoan eta 16-64 urte bitartekoen kasuan, aldiz, tasak ez du aldaketarik izan (% 64,8koa une bietan).

Alderaketa honetan beste datu bat dugu aipagarri: gazteen artean emakumeek gizonak baino tasa handiagoa dute; 16 eta 64 urte bitartekoen artean, aitzitik, gizonen tasa emakumeena baino handiagoa da.

**Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren okupazio-tasen alderaketa, sexuaren arabera (%)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina EUSTATEk emandako datuak (BJA) oinarri hartuta*